

LAUKIZ eta MARURI-JATABEko EUSKARA ZERBITZUA

eUTSI!

2010ko URTARRILA - 26 zk.



***“...Ta bitartean gabon gauean
Olentzero dator gurdi gainean...”***

ASTEBURU KULTURALA LAUKIZEN

Ohikoa denez, urriaren 23, 24 eta 25ean ospatu genuen Laukizen asteburu kulturala. Aurten egun bat gehiago izan dugu zeren eguraldi txarra dela eta ezin izan genuen egin irailaren 22an kotxe gabeko eguna. Hori dela eta, barikuan hasi ginen txirrindula martxa eta txokolatearekin baita bizikletaren zozketa ere. Zapatu goizean Atxispe inguruak prest zeuden umeentzako joku ezberdinekin baita tailerrekin ere. Eguraldiak ere lagundu zuen eguzki ederra atera baitzen goiz-goizetik. Arratsaldean tailerrak eta jokuez gain, txotxongiloak eta pailazoak izan genituen. Domekan berriz, nagusientzako ekintzak prestatu ziren: Bertso triki poteoa goizean "Zazpi astoren gainean" eta arratsaldean antzerkia euskaraz izan genuen lehenengo aldiz Atxispen. Loli Astorekak eta Iñake Irastorzak "Ezker-eskuma" antzezlanaren aurkeztu ziguten bertan bildutakoekin gozamenarako.



KIROL MAHAIA KULTUR ETXEAN



Pasa den azaroaren 20an, barikua, Kirol ezberdinen pertsonaia eza-gunak bildu ziren Maruri-Jatabeko Kultur Etxean gaur egungo kirol ezberdinen egoeraz mintzatzeko. Arratsaldeko 7.30ak inguruan Joxean Figueroa, Koldo Agirre, Alvaro Gonzalez de Galdeano, Ruben Perez eta Herri Torrontegi, prest zeuden saskibaloia, futbola, txirringularitza eta motoziklismoaz hitz egiteko. Nahiz eta kirol bakoitzaren egoera ezberdina izan (batzuk gehiago praktikatzen dira besteak baino ala baliabide ezberdinak izaten dituzte) denok azpimarratu zuten gauza bera: gaur egungo gazteen desmotibazioa batez ere edozein kiroletan profesionala izateko "sufritu" behar dela ikusten dutenean. Argi dago esfortzu barik eta lan egin barik ez dagoela ezer lortzerik baina egungo gizartea, baloreak eta heziketa beste leku batetik doaz eta askotan zaila izaten da benetako profesionalak ateratzea. Mintzaldi polita eta entretenigarria amaitzeko, aurreko astean antolatutako Futbito Txapelketaren sari banaketa izan zen.



MARURI-JATABE: BIZIMODUA ETA OHITURAK

Gehienok jakingo duzuen moduan, pasa den urriaren 30ean aurkeztu zen "Maruri-Jatabe: bizimodua eta ohiturak" izeneko liburua. Ez dugu berriro kontatuko beste leku askotan agertu dena (Maruri-Jatabetik aldizkarian, egunkarrietan...). Bakarrik azpimarratu nahi dugu bi urteko lana bildu dela liburu eta Dvd horretan eta lan hau aurrera eramateko Labayru ikastegiaren lanaz gain, herriko auzoko askoren denbora ezinbestekoa izan dela. Batzuek beren istorioak kontatu dituzte, beste batzuek berriz aintzineko argazkiak aurkitzeko "etxeko artxiboak" arakatu behar izan dituzte. Horretaz gain bakoitza nor zen eta gutxi gora behera zein urtetan zegoen aterata jakitea ez da bat ere erraza izan. Hemen ere guztion lana behar beharrezkoa izan da (alkatea, zinegotziak eta udal langileak, familiartekoak...) eta denon artean lan txukuna eta polita lortu dugulakoan gaude. Harro sentitzeko aitzakia dudarik gabe eta betiko geratuko dena. Beraz, era batez edo besteaz liburuak argia ikusteko lagundu duten guztioi Zorionak!



SAN MARTIN JAIK LORE JOKOAK



ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

Urria eta azaroan zehar, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Mungiako lagun batzuk bildu gara Maruri-Jatabeko Kultur Etxean as-
tean behin, argazkigintza ikastaroa egiteko. Nahiz eta batzuek besteek baino gehiago jakin, denok ikasi dugu zeozer be-
rri esposizio, abiadura, enfokea, eremu sakonera eta heren arauari buruz adibidez. Baina batez ere ikasi dugu gure argazki
makina erabiltzen, dituzten aukerak ezagutu ditugu gerora egoki erabiltzeko. Eskola, teoriko-praktikoak izan dira. Hori
dela eta, hasiera-hasieratik sortu diren zalantzak argitu ahal izan ditugu eta argazkiak era egokian ateratzeko kontuan
hartu beharreko guztia. Irakasleak, Oskar Calero, aholku eta azalpen orokorrak emateaz gain, bakoitzari ere eman dio
eman beharreko azalpena edota aholkua argazki kamera eta atera nahi genuen argazki motaren arabera. Ikasi-
takoaz gain gure artean sortu den giro ona azpimarratzekoa izan da eskolak dibertigarriago eta atseginagoak
izan direlarik. Ikastaroa amaitzeko, Plentziara joan ginen igande goiz batean ikasitakoa praktikan jartzeko
eta berriro ere irakasleari zalantzak galdetzeko.



Saharara bialduko dana batzen hasiak gara

Behin eta barriro, aurreko bost urteetan lez, Maruri-Jatabeko Udalak Saharako errefuxiatuei lagundu gura deutse. Ho-
nen bizimodua hobetzeko eta osasuna babesteko, jatekoak eta emakumeen osasuna zaintzeko konpresak batuko di-
tugu ondorengo egunetan. Janariaren artean, oso estimatuak dira azukrea, arroza, atuna eta sardinak oliotan, pasta, in-
dabak, garbantzuak eta lentejak.

Gure helburu nagusia hau da: kanpalekuetan bizitzera behartuta dagozanen egoera arintzea. Izan ere, anemia oso
zabalduta dago han, batez ere umeen eta seindun dagozan emakumeen artean. Estu eta larri dabilta behar dan mo-
duan jan ahal izateko.

Azkeneko urte hau aurrekoak baino sano gogorragoa izan da. Han ere ikusten dira - eta, behar bada, hemen baino
argiago - krisiaren ondorenak. Kanpotik eta erakunde internazionaletatik heltzen izan jakezan laguntzak murriztu egin
dira.

Egoera horren aurrean, ba, ea jatabetarrok gauza garean, orain urte bete emon genduan beste emoteko. Horixe da,
hain zuzen, aurten bete nahi dogun helburua: iaz beste batu ahal izatea. Guk emondako jatekoak askoren itxaropena
janaritu daike. Martxan dago, beraz, Saharako errefuxiatuen aldeko seigarren karabana, itxaropenaren trena.

LIBURUTEGIAK BIZI-BIZI

Irailetik abendura bitartean, bai Laukiz bai Maruri-Jatabeko liburutegietan ekintza ezberdinak izan ditugu hilean behin. Gauzak horrela, kamishibai teknika japoniarra ezagutu, antzerkitxoak ere prestatu eta antzestu txotxongiloekin eta ipuin berriak asmatu ditugu!!. Gabonetan berriz, aprobetxatu genuen aukera apaingarriak egin eta zuhaitzean eskegitzeko eta hain bitxiak eta politak diren elurrezko bolak egiteko ere. Beti bezala jende ugari, batez ere Laukizen Gabonetako apaingarrien tailerrarekin.

Datorren urtean otsailean hasiko gara berriz ekintza hauekin, baina bitartean segi liburutegira joaten: Liburu berriak, istorio berriak, altxor berriak aurkitzeko aukera egunero topa dezakezue!!



ABESTU GEUGAZ

EZ NAZAZU IRATZAR (LAIN)

Jada ez dago ezer
Egun eder haiek
Eta zero argi haiek
Izar dizdira haiek
Denborak eraman zituen ilusio haiek
Maitasun sutsuko itxaropen haiek
Baina oraindik hemen naiz
Amets guztien bila
Berpiztu nahian denak
Irrifar batzuen bila
Negar malkoak utzi
Eta iluntasunetik argira joan.

INOIZ EZ GALDU BARRUKO ITXAROPENA
INOIZ EZ IZAN INOREN TA EZEREN BELDUR
INOIZ BENETAN MAITE IZAN BADUZU INOR
ENTZUN DOINU HAU TRISTE ZAUDEN UNE BAKOITZEAN

Leihotik begira aurkitzen zintudan
Ordu txikietan, iluntasunean
Azken eguneko kale kantoiean
Galduta utzitako kemena dut barnean
Baina oraindik hemen naiz
Amets guztien bila
Berpiztu nahian denak
Irrifar batzuen bila
Negar malkoak utzi
Eta iluntasunetik argira joan.

Heldu nazazu
Inoiz lehenago ez bezala
Lainoetaraino iritsi arte zure albora
Baina onartu behar
Amets bat besterik ez dela
Horregatikan ez dut inoiz berriro esnatu nahi.

ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

MARIA FERNANDEZ
GEMA LARRAZABAL
ARGIÑE UGARTE
SAIOA SANZ




MARURI-JATABEKO
UDALA



LAUKIZKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aklundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



euskara biziberritzeko plan nagusia
plan general de promoción del uso del euskera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA